# Lauraren herria





Laura aitona-amonak ikustera joan da. Laura hiri handi batean bizi da, baina aitona-amonak herri txiki batean bizi dira. Laurari herrira joatea gustatzen zaio, herrian zarata gutxiago dagoelako eta herritar gehienek ezagutzen dutelako. Landan jolastea eta aitonari zuhaitzetako frutak biltzen laguntzea gustatzen zaio. Bero egiten duenean, Laura ibaian bainatzen da lagunekin.

# Zer dakigu?

Erantzun galdera hauei:

Zu bizi zaren lekuak bi irudietatik zeinekin du antzik handiena?

Non dago etxe eta pertsona gehiago?

Hiriaren irudian nor doa kamioi gorrian?

Zer saltzen dute gurutze berdea dagoen dendan?

Aukeratu:

Zergatik joan nahi du Laurak aitona-amonen herrira?

| | |
|---|---|
| Dendan frutak erosten ditu | Zarata gutxi dago |
| Ibaian bainatzen da | Ez du lagunik |